Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2015eko ekainaren 26a, ostirala — 120 — Viernes, a 26 de junio de 2015

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ALEGIAKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzak, 2014ko martxoaren 30ean egindako batzarrean, hasierako onespena eman dio «Espetxe-zigorrak Alegiako herriaren alde lan eginez ordezkatzeko araudiari».

Jendaurreko bideraztean, erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin-betiko onartutzat ematen da.

Ondorioz, eta Toki Jaurpidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan jasotakoari jarraiki, aipaturiko Ordenantzaren aldaketa argitaratzen da.

Interesatuek bide administratiboan behin betikoa den erabaki honen aurka jo dezakete, Bilbon dagoen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoan administrazioarekiko auzi-helegitea jarriz bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen den edota izaera orokorreko xedapena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Hori guztia egoki iritzitako beste edozein helegite aurkeztearen kaltetan izan gabe.

Alegia, 2015eko ekainaren 19a.—Unai Iraola, alkatea. (6019)

*Espetxe-zigorrak Alegiako udalherriaren alde lan eginez ordezkatzeko araudia.*

*Lehena. Xedea.*

Araudi honen xedea, udalerriari dagozkion oinarrizko aspektuak arautzea, bertako biztanleek espetxe zigorrak aldatu ahal izatea ahalbidetzeko, komunitatearen aldeko lanen bidez.

*Bigarrena. Baldintzak.* .

Espetxe-zigorrak herriaren aldeko lan egiteko zigorretan bete daitezen, eskatzaileak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

— Alegian erroldatuta egotea.

*Hirugarrena. Egingo diren lanak.*

Espetxe-zigorrak Alegiako herriaren alde egindako lanen bidez betetzeko, lan horiek momentu bakoitzean Udalak dituen beharren arabera definituko dira. Horregatik, eskaera egiten den momentuan Udalak zerbitzu honi eskaintzeko lanik ez badu, eskaera ez onartzeko aukera izango du.

*Laugarrena. Lansaioaren ezaugarriak.*

Lan jardunak 2 orduko iraupena izango du gutxienez eta 8 gehienez, jardunaldi jarraian edo etenean. Dena den, eskatzaileak planteaturiko lan jarduna edota ordutegia eta Udalaren interesak bat ez badatoz, azken hauek izango dute lehentasuna eta, horrenbestez, Udalak eskaera ez onartzeko aukera izango du.

*Bosgarrena. Harreman laboralarik gabe.*

Zigortuak egingo duen lanak ez du lan harremanik eta ordaintzeko eskubiderik sortuko.

## AYUNTAMIENTO DE ALEGIA

*Anuncio*

La Corporación en sesión celebrada el día 30 de marzo de 2015 ha aprobado inicialmente el «Reglamento para la sustitución de penas de prisión por trabajos en beneficio del municipio de Alegia».

No habiéndose presentado reclamaciones, en el período de información pública, se entiende aprobado definitivamente.

En consecuencia, se procede a la publicación íntegra de la citada Ordenanza, conforme a lo previsto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Contra la presente resolución que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas pueden presentar Recurso Contencioso-Administrativo, ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la publicación de la disposición de carácter general en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime pertinente.

Alegia, a 19 de junio de 2015.—El alcalde, Unai Iraola. (6019)

*Reglamento para la sustitución de penas de prisión por trabajos en beneficio del municipio de Alegia.*

*Primera. Objeto.*

Es objeto de este reglamento, regular los aspectos básicos en relación al municipio, que posibiliten la sustitución de las penas de prisión de las personas residentes, compensando por trabajos realizados en beneficio de la comunidad.

*Segunda. Requisitos.*

Para el cumplimiento de penas de prisión mediante penas de trabajo en beneficio de la comunidad, la persona solicitante deberá cumplir los siguientes requisitos:

— Estar empadronada en Alegia.

*Tercera. Trabajos asignados.*

En el cumplimiento de penas de prisión mediante trabajos en beneficio de la comunidad del municipio de Alegia, los trabajos se definirán puntualmente en función de las necesidades del Ayuntamiento en ese momento. Se podrán desestimar las solicitudes presentadas cuando no se disponga de trabajo a asignar en ese momento.

*Cuarta. Características de las sesiones de trabajo.* .

La sesión de trabajo tendrá una duración mínima de 2 horas y máxima de 8 horas, en jornada partida o seguida. No obstante, en caso de incompatibilidad entre la jornada y/o horario planteado por la persona solicitante y los intereses del Ayuntamiento, tendrá prioridad este último, pudiendo constituir causa de desestimación de la solicitud.

*Quinta. Ausencia de relación laboral.*

El trabajo que realice el penado no creará relación laboral alguna ni derecho a ser retribuido.

EK\CV GAO-I-2015-06019

*Seigarrena. Gastu eta kalteordainak.*

Eskatzaileari Alegiako Udalean zigorrak betetzeak garraio edota mantenu gastuak sortuko balizkio, bere kontura lirateke.

Kalte-ordainei dagokienean, Udal langileei aplikatzen zaien Araudia aplikatuko zaie eta betiere Udalak aurrez onartutako gastuak eragiten dizkionean Udalean egindako lanak.

*Zazpigarrena. Gizarte segurantzako betebeharrak.*

Gizartearentzat lan egiteko zigortuak izan direnen Gizarte Segurantzaren babesari dagokionez, uztailaren 6ko 782/2001 Errege Dekretuaren 22. artikuluan ezartzen den Gizarte Segurantzaren babes-ekintzaren pean egongo dira, baina laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen ondorioetarako bakarrik.

Zigortuaren gizarte segurantzarekiko betebeharrak Barne Ministerioari eta INSS-ari dagozkie.

*Zortzigarrena. Prozedura.*

Espetxe-zigorra Alegiako herriaren aldeko lanarekin ordezkatu nahi duenak eskaera idatziz egin beharko du horretarako Udaletxean finkatutako ereduan.

Eskaera-orria, behar bezala eta dagokion agiriekin, Alegiako Udaletxeko gizarte zerbitzuetan, aurkeztuko da. Lanak eskaintzeko garaian, eskaera-orriaren sarrera-data hartuko da kontuan.

Prozedura ondorengoa izango da:

— Eskatzaileari elkarrizketa egingo zaio Gizarte Zerbitzuetan.

— Pertsonaren profilaren eta libre dauden plazen arabera, lan egutegia eta ordutegia ezarriko dira.

— Bere lanaren jarraipena egiteko arduraduna jarriko zaio eta arduradun honek asistentzia orria bete beharko du.

— Lan plana sinatuko dute zigorra bete behar duen pertsonak, Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta zigortuari jarraipena egin behar dion pertsonak.

Eskaria aztertu eta baloratu ostean, Alegiako Udaletxeko Alkatezak bideratuko da, honek erabaki dezan.

Eskaera ez onartzeko arrazoietako bat izan daiteke momentu horretan tokirik edo lan jakinik ez izatea pertsona horrentzat edo ezin erantzun ahal izatea Udalak dituen baliabide pertsonal edo materialekin. Erantzuna idatziz bidaliko zaio eskatzaileari.

*Bederatzigarrena. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

Eskaera-orriarekin batera honako agiriak aurkeztu beharko dira:

— Eskatzailearen identifikazio-txartela (NAN, Atzerritarren Identifikazio-zenbakia edo pasaportea).

— Espetxe zigorra ezartzen duen sententziaren kopia bat (zein deliturengatik zigortua izan den azaldu beharko du).

— Eskatutako lanak ezin dituela bete adierazten badu, hau mediku ziurtagiri bidez egiaztatu beharko da.

*Hamargarrena. Lanean hastea.*

Behin Udalbatzaren ebazpena jasotakoan, eskatzaileak honen kopia bat espetxe-zuzendaritzara eramango du onartu diezaion kartzela-zigorra herriaren aldeko lanekin ordezkatzea.

Lanean hasteko, epailearen onarpena aurkeztu beharko du Alegiako Udaletxean.

*Sexta. Gastos e indemnizaciones.*

El Ayuntamiento de Alegia no asumirá gastos de transporte ni de manutención que pudiera tener el solicitante por cumplir la pena.

Respeto a las indemnizaciones, se les aplicará la normativa que se aplica al personal trabajador municipal, siempre que el trabajo realizado en el ayuntamiento correspondiente les suponga gastos que hayan sido previamente autorizados por dicho ayuntamiento.

*Séptima. Obligaciones con la Seguridad Social.* .

En materia de protección de Seguridad Social de las personas sentenciadas a la pena de trabajo en beneficio de la comunidad, tal y como establece el Real Decreto 782/2001, de 6 de julio, en su artículo 22, únicamente estarán incluidas en la acción protectora de la Seguridad Social a efectos de las contingencias de accidente y enfermedad profesional.

Las obligaciones respecto a la Seguridad Social de la persona penada corresponden al Ministerio del Interior y al INSS.

*Octava. Procedimiento.*

La persona penada que quiera sustituir su pena de prisión por trabajos en beneficio de la comunidad en el Ayuntamiento de Alegia, deberá solicitarlo por escrito conforme al modelo establecido por el Ayuntamiento.

La solicitud, debidamente cumplimentada y con la documentación correspondiente se presentará en los servicios sociales del Ayuntamiento de Alegia. A la hora de ofrecer los trabajos se tendrá en cuenta la fecha de entrada de la solicitud.

El procedimiento será el siguiente:

— Se le hará una entrevista a la persona solicitante en los Servicios Sociales.

— Teniendo en cuenta el perfil de la persona y las plazas libres, se le establecerá un calendario y horario de trabajo.

— Se le asignará una persona responsable que le hará el seguimiento y llenará la hoja de asistencia.

— Firmarán el plan de trabajo la persona penada, los Servicios Sociales y la persona que le hará el seguimiento.

Una vez analizada y valorada la solicitud se trasladará su propuesta de aprobación o desestimación al Alcalde de la Corporación que resolverá la solicitud.

Uno de los motivos para desestimar la solicitud podrá ser el no disponer en ese momento de lugar o tarea apropiada para dicha persona o por no poder atender con los recursos personales y materiales de que dispone el Ayuntamiento de Alegia. La respuesta le será remitida por escrito a la persona solicitante.

*Novena. Documentación a presentar.*

Junto con la solicitud deberá presentar la siguiente documentación:

— Documento de identidad del solicitante (DNI, NIE o pasaporte).

— Copia de la sentencia por la que se impone la pena de prisión.

— Si se alega no poder cumplir una serie de tareas, esto se deberá justificar por medio de certificado médico.

*Décima. Inicio del trabajo.*

Una vez recibida la resolución del Ayuntamiento de Alegia, la persona solicitante deberá entregar una copia de la misma en la dirección de la prisión a fin de que el juez apruebe la sustitución de la pena por trabajos en beneficio de la comunidad.

Antes de empezar a trabajar deberá presentar al Ayuntamiento de Alegia la aprobación del juez.

EK\CV GAO-I-2015-06019

*Hamaikagarrena. Instruktorea.*

Egin beharreko lanen garapenari dagokionez, zigortuak bere arduradunak ematen dizkion jarraibideak jarraitu beharko ditu.

*Hamabigarrena. Gertakariak.*

Alegiako Udaletxean egindako lanean izandako gorabeherak Espetxeko Kanpoko Gizarte Zerbitzuari jakinaraziko dizkio idatzizko txosten baten bidez. Gorabehera horiek honako hauek izan daitezke:

— Arrazoirik gabe lanera ez etortzea edo lanpostua uztea.

— Eska daitekeen gutxieneko errendimendua baino errendimendu nabarmen txikiagoa izatea.

— Lanpostuaren arduradunak emandako jarraibideak ez betetzea edo horien aurka egitea, behin eta berriz eta nabarmen.

— Zigortuaren jarrera dela eta, arduradunak zigortua lanean ez mantentzea eskatzen duen txostena egin eta Udalak onartzea.

— Alegiako udalari egoki deritzon beste antzeko gorabeheraren bat.

*Hamairugarrena. Lanaldia bertan behera uztea.*

Alegiako Udalari eskainitako laguntza moztu ahal izango du zigortuak lanaldian izandako gorabeheren ondorioz.

Alegiako Udalak idatzizko txosten bat bidaliko dio Espetxeko kanpoko Gizarte Zerbitzuari, laguntza mozteko arrazoiak azalduz, eta horrekin laguntza/lanaldia amaitu dela ulertuko da.

*Undécima. Instructor.*

La persona penada deberá seguir las instrucciones de la persona responsable que realizará su seguimiento.

*Duodécima. Incidencias.*

El Ayuntamiento de Alegia, mediante informe escrito, pondrá en conocimiento del Servicio Social Externo del Centro Penitenciario las incidencias que haya habido en el trabajo. Las incidencias podrán ser las siguientes:

— No acudir al trabajo o abandonar su puesto, sin justificarlo.

— Mostrar un rendimiento sensiblemente inferior al mínimo exigible.

— Incumplir u oponerse, reiterada y manifiestamente, a las instrucciones del responsable de su puesto de trabajo.

— Cuando su conducta sea tal que el responsable de la persona penada redacte un informe solicitando que no se le mantenga en el trabajo y la solicitud sea aprobada por el Ayuntamiento.

— Cualquier incidencia similar que considere el Ayuntamiento.

*Decimotercera. Cese del periodo de trabajo.*

El Ayuntamiento podrá suspender la prestación de la colaboración a causa de la existencia de incidencias en el trabajo de la persona penada.

El Ayuntamiento trasladará un informe por escrito al Servicio Social Externo del Centro Penitenciario, en el que expondrá los motivos de la suspensión de la colaboración, y con ello se entenderá finalizada dicha colaboración o trabajo.

EK\CV GAO-I-2015-06019